

## Beharra eta biharra

**G**uztiz ulertzen dut, Juanjo, Josiren txantxangorri ironikoari alpisterik ez eman nahi izatea. Ondo azaldu duzun moduan, ezkontza bezain ekintza “konformista” kontestua-  
ren arabera eta historikoki kokatuz gero askatzaile bihur daiteke. Bere izaera gizartearen aurrean segurtatu gabe daukan gizatalde batentzat beharrezkoa bihur daiteke legearen ezagupena beste gizatalde batzuentzat itotzaila eta atzerakoa delarik.

Ez dut esan beharrik, gauza berbera gertatzen dela historikoki inoiz ezagupenik izan ez duten herrien ezagupen legalarekin. Izan ere, zenbat aldiz ez dugu gutako askok honelako erantzuna jaso jendartean euskal estatu baten beharra adieraztera ausartu garenean: “Estatuak eta mugak desagertzea doazen honetan, ez al zabiltzate pixka bat atzeraturik euskaldunak zuen aldarrikapen horrekin?”.

Une horietan arlote sentitzeaz gain kokapen historiko zein kontestualaren azalpena egiteko indarrik edo kemenik gabe geratzen zara. Ondo baitakizu, esperientziak, munduko azalpen guztiek ez diotela kenduko parean daukazu morroi “postmodernoari” begiradaren hondoan daukan izpi ironiko hori, txantxangorriarena bezalakoxea. Azaldu nahi zenioke ezetz, ez zarela munduaren bilakaeratik moztuta bizi, zuk ere irakurri dituzula berak irakurri dituen autore postmodernoak, zuk ere *Matrixen* trilogia ikusi duzula (ez baldin bada irakurtzaile izatera iritsi gizajo hura), zuk ere txolinkerietan denbora galtzea maite duzula (erakutsiko zenioke zure mundu osoko garagardo laten bilduma ikusgarria), zuk ere pornografia jaisten duzula Internetetik... Alegia, zuk ere ere baduzula zure baitan beste “zu” bat, berea bezalakoa (gutxi gora behera, ez dezagun exageratu...). Baina badagoela baita ere zure baitan “zu” desberdin bat, armairutik atera gabea. Estatu baten beharra daukana bere etorkizuna bermatzeko, bere biharra ziurtatzeko.



Zeren ez ezazue pentsa, Josi eta Juanjo, gustura eta eroso ibili naizenik “Txillardegirena egiten” azken asteotan orrialde honetan, tinko eta irmo eutsiz abertzaletasun-ezkertiarraren katiximari (edo nire bertsoiari, behinik behin). Ez naiz idatzitako lerro edo hitz bakarraz damutzen, baina bai aitortzen dut astun sentitzen naizela, dagokigun zama historikoagatik astun, jakina, baina baita irakurle zenbait aspertzeko beldurrez heldu izan diodalako lumari behin baino gehiagotan. Edo ni neroni aspertzeko beldurrez, apika. Ez dut bokazioz eta plazerez idazten euskaldunoi kolektibo gisa dagozkigun eskubideez. Beti justifikatu beharra akigarria da. Ehun metroak korritzeko mendiko botak jantzi behar banitu bezala sentitzen naiz halakoetan. Guk ere badugu gure baitan, noski, “jende arruntak” duen arintasuna, ezein talde zapalduen partaide ez izateak ematen dizun ezaxolkeria dotore hori. Baina zertarako balio lidake ehun metroak bederatzi segundotan korritzeak beste batzuen onerako balitz, *Txunda txunda* gazi-gozo baten doinuak estaliko balu nire poza? Nahiago dut nire ehun metroak mendiko botez egitea, baina ez ahal bezain azkar, baizik eta Monty Pythonek behiala asmatutako ibilera bitxi horietako bat nire eginez (demagun ezker oinarekin eskuinarekin baino pauso luzeagoak egiten ditudala eta besoak hegalak bailiran astintzen ditudala aldi berean), agian horrela ikuslego unibertsalari lasterketa bera baino gehiago interesatuko zaiolakoan nire extrabagantzia.

«  
Gorroto dut euskalduna *bakarrik* izatea –ez diot sinpatiarik, filosofikoki behinik behin Estatuaren ideari, ez eta nazioaren ideari ere–, baina are gehiago gorroto dut norbaitek galeraz diezadan euskaldun izatea  
»

Gorroto dut euskalduna *bakarrik* izatea –ez diot sinpatiarik, filosofikoki behinik behin Estatuaren ideari, ez eta nazioaren ideari ere–, baina are gehiago gorroto dut norbaitek galeraz diezadan euskaldun izatea.

Eta ez dakit hau barrikada bat gehiago den, baina baliteke harri-kada ederra izatea... ■